



Erailketa, indarkeria matxistaren adierazpen muturrekoena

Emakumeek egunerokoan bizi duten egiturazko indarkeria salatzeko performance-a aurkeztu zuen Andoaingo Asanblada Feministak. / 2-3

Euskaraldiarekin bat egin dute milaka lagunek

Andoainen bi mila lagun pasatxo, Urnietan mila eta Euskal Herri osoan berrehun mila lagunetik gora murgildu dira Euskaraldian / 6-9



Urnietako Egape ikastolan indarkeria matxistaren aurkako lanketa berezia egin dute egunotan / 12



Sentsibilizazio kanpaina Andoaingo kaleetan, eraildako emakumeen izen-abizenekin / 2



Asier Niebla gaztea gogoan hartu zuten berriro, Urnietako Udalak deitu zuen elkarretaratzean / 12



Aurpegia gorritz margotzean, makurtu egiten zen emakumea. Eraildako emakumea irudikatu zuten horrela. AIURRI

Ekimen ikusgarri eta parte-hartzailea azaroaren 25ean

Emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko egunean, Andoaingo Asanblada Feministak performance ikusgarri eta jendetsua eskaini zuen Goikoplazan. Lehenago, Andoaingo Udalak plazan bertan azaroaren 25ari lotutako adierazpena irakurri zuen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Adin ezberdineko 50 emakume, guzti-guztiak beltzez jantzita, gertaera historiko ezberdinen lekuko izan diren Goikoplazako eskaileratan ipini ziren goizeko 11:00ak aldera. Emakumeen

aurkako indarkeriaren nazioarteko egunean, hitza eta gorputza baliatuz, indarkeria mota guztiekin nahikoa dela aldarrikatzeko plaza bereganatu zuten. Erailketa muturreko indarkeriaren adibide gordinena baita,

baina ez bakarra. Performance ikusgarrian indarkeria maila ezberdinak gogora ekarri zituzten: ahozko indarkeria kasuak, jai giroan pairatzen dituzten jazarpenak eta ukipenak, mezipretxua lan munduan, edota

egunerokoan etxe barruan maiz ematen den jokabide matxista. Jazarpen eta indarkeria zerrenda hori aipatzen hasita, Andoaingo Asanblada Feministak oso argi dauka indarkeria matxista egiturazkoa dela: "Zalantzarik gabe, emakumeenganako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko desorekaren adierazpen nagusia da. Eta kasu batzuetan gu geu emakumeak ez gara jabetu ere egiten, desoreka horien normalizazioa eta asimilazio sistematikoa gure gizartean errotuta baitaude. Testuinguru gordin honetan, (in)justizia dugu jaun eta jabe, (in)justizia patriarkala".

Goikoplazako ekitaldian adierazi zuten, emakumezko asko dagoeneko ez da elkarretartatzeekin eta minutuko isiluneekin konformatzen. "Egunak joan, egunak etorri, biolentzia matxistak presente dirau, baina, bien bitartean emakumeok ez gaude itsu, mutu edo gor. Jakin badakigu biolentzia matxistari aurre egiteko alor askotan borroka egitea dagokigula. Sisteman eragin nahi dugu, eta patriarkatua astindu. Horretarako gizarte osoaren inplikazioa behar dugu, bakoitzak bere erantzukizuna bete dezan".

Hiru eskaera nagusi: Justizia, hezkuntza eta komunikabideak
Erakunde eta gobernuetan funtsezko lehentasuna izatea eskatu zuten, "behar diren baliabideak eskura jarritz, salaketen kasuan erasotuen integritate fisiko eta psikikoa bermatuz, eta beharrezko baldintzetan erreparatuz". Heziketa partekatuen aldeko defentsa egin zuten, "harreman afektiboak eta sexualak sanoak sustatuz, printzesa babesgabeak eta *matxito* biolentoak bazterrean utzita".

Hedabideei eskaera zehatza egin zieten: "Indarkeria matxistaren inguruko berriek trataera zorrotz bat izan dezaten, bizilagunen aitortzetatik harago, eraso ezberdinen errealitatea oinarritik azalduz eta kontestuaren larritasuna aintzat hartuz".

Eskaera horiek egin ondoren, performancean parte hartu zuten emakumeekin batera boro-bolean jartzeko gonbitea luzatu zitzaion ikuslegoari. Dozenaka ziren, eskutik helduta, plazan elkartutakoak. Ekitaldi ikusgarri eta parte-hartzailea txalo zaparradarekin amaitu zen.



Afitxa Nafarroa plazan. AIURRI

Eraildako emakumeak gogoan

Aurreko egunetan emakumeen silueta ugari ikus zitezkeen paretetan itsatsita, herri osoan zehar. Biolentzia matxistak eragindako hildakoen izen-abizenak ziren, erailketa gertatu zen tokia eta eguna zehaztearekin batera.

Afitxa edo kartel horiek, hein batean, igande goizean Goikoplazan irudikatu zuten performance-a iragartzeko modua izan zen.

Ianire Huizi ekitaldiaren aurkezleak datu hotz eta gordin horiek gogora ekarri zituen performance-aren hasieran, hitza hartu eta berehala: "2010 eta 2017 urteen artean espainiar estatuan 769 hilketa matxista izan dira, 769 eraildako emakume, hain zuten. Benetan datu gogorra. Sarraskiak ez du etenik. 2018an, oraingoan, eraildako 89 emakume ditugu. Euskal Herriari dagokionez, berriz, 2003tik hona eraildako emakumeak 98 dira, eta haurrak guztira 11.

Erailketa indarkeria matxistaren adierazpen muturrekoena da, baina ezin dugu ahaztu egunerokotasunean bizi dugun egiturazko indarkeria, indarkeria sinbolikoa edota gorputzen aurkako indarkeria".



Performancean justizian, hezkuntzan eta komunikabideetan sakontzea eskatu zuten. AIURRI



Jazarpen egoerak saihestu eta emakumeen eskubideen alde eginez amaitu zuten saioa. AIURRI



Ekitaldiaren amaieran dozenaka lagun elkartu zen, eskutik helduta, indarkeria matxistaren aurka. AIURRI



Ana Carrere alkatea Udal ordezkarien eta asanbladako kideen ondoan. AIURRI

Udal adierazpen bateratua

Azaroaren 25eko ekitaldi nagusian, Ana Carrere alkateak adierazpen osoaren atal nagusienak irakurri zituen: "Emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro guztiz onartezina dela baieztatzeko eguna da; indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izateagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean.

Urteak daramatzagu lanean emakumeek gizonen eskubide eta aukera berberak izango dituzten gizarte bat eraikitzeko. Alabaina, egunez egun biolentzia matxistaren egoerak bisibilizatzen ditugu, egiturazko biolentzia existitzen dela erakusten diguna, gizartearen arlo guztietan dagoena.

Indarkeria matxista lehen mailako arazoa da, emakumeontzat eguneroko ogia. Tamalez, ezkutuan mantentzen da askotan, baita justifikatu ere. Indarkeria matxistatik libre egongo den gizarte igualitario baten eraikuntzan beharrezkoa da indarkeria matxista kasuak ezagutzea, eta horrela, biktimak bisibilizatu, indarkeria mota horren deslegitimazio sozialean lanean jarrai dezagun. Baina ez da nahikoa bisibilizazio eta sensibilizazioarekin; beharrezkoa da interbentzioaren fase guztietan esku-hartzea: prebentzioan, detekzioan, arretan, babesean, justizian, eta nola ez, baita erreparazioan ere. Indarkeria matxistaren biktimak genero eta jabekuntza ikuspuntutik behar bezala artatuak izan daitezela bermatu behar dugu.

Gaur emakumeen erreparazioan zentratu nahi dugu, baita indarkeria sufritzen duten haurren erreparazioan ere. Biktima errekonozimendu horretatik harago, ez da hitz egiten erreparazio sozial eta ekonomikoaz, edota zerbitzu ezberdinetan eskaini beharko litzatekeen artatzeaz –esaterako, polizia etxeetan, epaitegietan, ospitaleetan, gizarte zerbitzuetan...–.

Andoaingo Udalean honetan sakondu nahi izan dugu, eta horregatik, indarkeria matxista kasuetako interbentzioaren urrats guztiak jasoko dituen protokolo batean ari gara lanean, arreta berezia jarriz prozesu honen azken urratsean, alegia, emakumeen erraparazio osoari dagokionean.

Horregatik guztiagatik, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Andoaingo Udalak ondorengo konpromisoak hartu nahi ditu:

- Andoaingo Udalak konpromezua hartzen du indarkeria matxistaren biktima guztiak artatzeko bere urrats guztietan, momentu honetan sektore ezberdinekin lantzen ari den protokoloaren baitan, eta horretarako beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak jarritz.
- Andoaingo Udalak, izatea eta izendapena orekatzeko asmoz, hemendik aurrera “indarkeria matxista” terminoa erabiliko du, hauxe baita pertsona adituek modu arruntetan darabilten kontzeptua".

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Kolektiboa, talde eragilea eta pertsona

Erreferentziak bilatu nahian edo, Andoaingo Euskaraldiaren babesa iazko azaroan Gure Esku Dagoko galdeketak lortu zuenarekin parekatzen ari naiz. Batere zientifikoak ez diren kalkuluak dira nireak, baina badirudi kanpaina handi samarra abiatzen den aldioro 2.000-3.000 lagun inguru aktibatzea lortzen dela. Andoain herriak 14.000 biztanle baldin baditu, seitek edo zazpitik bat modu aktiboan parte hartzen ari da. Askotxo al da hori? Bazterrekoa ez dela esan daiteke.

Jar dezagun arreta kolektiboa mugiarazten duen talde eragilearengan. Orokorra da, baina bereziki Urnietan betetzen da ondoen adierazi nahi dudana. Herritarrak mugiarazi nahi dituzten talde eragile horietan pertsona beretsuak ikus daitezke Gure Esku Dagoko giza-katearen antolakuntzan, Bake eta bizikidetzat taldeko bileretan edota Euskaraldia dinamizatzeko batzorde eragilean. Gutxitxo al dira? Bai, baina eraginkorrak.

Errepara diezaigun orain kolektiboa osatzen duten banakoei, pertsonai. Jendartea eroso bizi da, antolatze lana beti besteen esku utzita. Zer egin ekimen kolektibo berri bakoitza iristen denean? Inor gehiago mugitzen ez denez, laguntza eskatzen diote dagoeneko okupatuta bizi den eragileari.

Salbuespen pozgarri bakan horietakoa feminismoaren inguruan aurki daiteke. Belaunaldi ezberdinetako 50 pertsona batera aritu ziren igandean, Goikoplazan egin zuten performancean. Ahalduntze ariketa bikaina.

Erabakitze eskubidearen alde eta beste kausa batzuren alde aritzen diren eragileekin batera, Andoaingo Euskaraldian alderdi politiko nagusietako ordezkariak ekimen betean ikusi ditugu. Bejondeiela, palaziotik kanpo jokabide eredugarria erakutsi dute.

Palazioa aipatzen hasita, udaletxearen inguruan dabilzanen artean, batek baino gehiagok ezustekoa edota disgustua hartu zuen Jon Zulueta alkategai ez dela izango jakin zuenean. Alkate lanetan irudikatzen zuten, gaitasuna aitortzen dioten seinale. Ana Carrereren oinordekoa aukeratzea, ordea, ez da dekretuz hartuko den erabaki *borbonikoa* izango. Lehiatu beharra dago.

2019ko ekainetik aurrera agintzeko, hautes-mahaietako bozkalekueetatik igaro behar da. EH Bilduk, Andoni Alvarezen alde egitean, profil politikoa ez duen pertsonaren alde egitea erabaki du. Giza faktorea, gertutasunak ematen duen aldagai hori, gakoetakoa da Udal hauteskundeetan. Kolektiboaz arduratzeko, eragile lanak egitera ohituta dagoen pertsona gaztea alkatetzarako proposatu dute. Bota duten enbidoak 31koa ezkututzen duela dirudi.

POSTONTZIA

Andoaingo PSE-EE alderdia, nahikoa da

IPAR HAIZEA - ANDOAIN

Berriki, negarren aldiz, hondakinen inguruko ohar bat zabaldu dute gai horren inguruan gatazka piztu, herritarrak aurka jarri eta protagonismoa irabazteko.

Ez da berria jokabidea. 2015eko udaberrian, Udal hauteskunde bezperan, gezurra zabaldu zuten Andoainen egun gehiengo duten alderdiek irabazi ezker atez atekoa ezarriko zutela adieraziz. Gezur galanta, sistema hori inoiz ez baita izan aukera bat ere Andoainentzat.

2018aren hasieran, Andoaingo hainbat auzotan burutu behar zen proba pilotuaren inguruan gezurra esan zuten berriro. Orduko hartan birziklatzea egun solte batzuetara mugatuta zegoela

baieztatu zuten, errealitatean 24 orduz eta 365 egunez birziklatzeko aukera zegoenean. Soilik errefusaren edukiontzia irekiera astean 4 alditara mugatuta-pixoihalak erabiltzen dituzten etxebizitzetan kasuan, irekiera edozein momentutan-, herritarrak berak aukera zitzakeen, eta ongi birziklatzen duen herritarrak jakin badaki astean behin zabaltzearekin nahikoa dela.

Orain berriro bazterrak nahastu eta bilketa datuei buruzko datuak modu nahasgarrian erabili dituzte, kaleratu berri duten Adarra aldizkarian. Proba pilotuko datuak ez direla erabakiorrak diote, eta datuek aldiz erakusten dute 5. edukiontzi marroiaren erabilera modu esanguratsuan igo dela.

Portzentaia gehiago igo bada herritar gehiago bera erabiltzen hasi direlako da, ez udan gehiagotan erabili dutelako. Olagainen, Sorabillan eta Alejandro Calongen proba 2018ko martxoaren amaieratik iraila bitarte izan zen, ez udan bakarrik. Andoaingo PSE-EE taldeari jokabide hori baztertzeko eskatzen diogu.

Andoainen planteatzen ari den sistemaren moldaketa beste herri askotan emaitza paregabeak ematen ari da, baita PSE-EE agintean dagoen herrietan ere, esaterako Zumarragan. Nahikoa da giroa gaiztotzeaz, gatazkarik ez dagoen tokian piztu nahi izateaz eta oztopoak jartzeaz! Birziklatze datuak hobetzeko gainerako alderdiek hartutako erabakiak errespetatu ditzatela!

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzaila: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** ELITE MUGATUA

ALJATUAK: **INSTITUTU** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINO UDALA

URNIETA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

EURO INFLUENTIA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlinsusmerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA: **Bitkain**

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Identitate propioa ematen digu euskara erabiltzeak"

MANEX ALDAI URNIETAKO EUSKARALDIA BATZORDEKO KIDEA

Amaia Senperena URNIETA
Azaroaren 16ko ekitaldian indar erakustaldi handia egin zen. Oso pozik egoteko modukoa da, ezta?

Oso ondo atera zen. Izen emate asko izan genituen eta txapen banaketa ere bertan egin genuen. Urnietarrei, eta ekitaldian parte hartu zuten dultzainajole eta buruhandiei, Egape dantza taldekoei, bertsolariei zein aurkezleari eskerrak eman nahi genizkieke. Beraiek gabe ez zen posible izango ekitaldia aurrera eramatea.

Eta nola ez, eskerrak eman edozein elkarteren izenean Hamaikakoan parte hartzera animatu ziren eragileei eta baita bertara gerturatu ziren urnietarrei ere.

Hamaikako ezberdinak osatu zenituzten, lanketa handia dago atzetik. Aurkezleak zuentzat txaloak eskatu zituen...

Bai, lana izan zen banaka-banaka elkarte bakoitzera hurbiltzea, baina azken emaitza ikusita, merezi izan du.



Manex Aldai urnietar gaztea erdian, azaroaren 23ko kantujiaren hasieran. AIURRI

Indar handiko ekitaldia.

Nik baiezkota esango nuke. Urnietak ez du euskara batzorderik eta ekitaldi honekin ikusi da herrian badirela euskararen alde egiten dutenak. Beraz,

etorkizun batean egitasmoren bat sortzeko bidean, indarrak hartzeko ere balio dezakeela iruditzen zait.

Iritsi da herritarren garaia, euskaraz aritzeko garaia. Zein litzateke zuretzat lorpen

handiena, akaso eguneroko ohitura txikiak aldatzea?

Euskaraldiarekin lor dezakegun lorpenik handiena Urnietan ahalik eta euskara gehien hitz egitea eta Belarriprestak ere euskarara gerturatzen joatea da. Euskara ez galtzeko hitz egin behar baita. Etorkizunari begira, euskara hamaika egun horietatik kanpo ere erabiltzea da xedea.

Aurreko Aiurri herrikide asko Euskaraldiari buruz iritzia ematen aritu ziren. Horiek irakurtzean zer pentsatu edo hausnartu zenuen?

Poz izugarria eman zidan herritarrek bertan ikusteak. Herria Euskaraldiarekin dagoela ikusteak, parte hartzeko gogoz gainera, oso pozgarria da.

Gaztea zara, gazteen aldetik zer nolako inplikazioa sumatzen ari zara?

Hamaika egun hauetan gazte guztiok euskaraz egiten badugu, aurrerapauso handia emango dugula esango nuke.

Nola animatuko zenuke urnietarra, Euskaraldian parte har dezan?

Identitate propioa ematen digun hizkuntza zoragarria erabiltzeari uzten badiogu, identitatea galduko dugu. Hori gerta ez dadin, parte hartzera animatu nahi ditut.

HAU ERE BADUGU!

Atxiloketa ikusgarria Txistoki zubian



Ertzaintzak azaroaren 26ko goizean zabaldu zuen albistea, eta horri lotutako bideoa: Lapur taldea atxilotu eta epailearen aurrean utzi zutela. Aiurrik Andoaingo bideoaren pasarte zabaldu zuen, eta ordu gutxitan bisitaldi ugari zituen Youtuben.

Aiurrira, aurreko egunetan, mezu ezberdinak iritsi ziren. Twitter bidez, erabiltzaile batek honakoa idatzi zuen: "Bart gauean etxetik western kutsuko filmaren lekuko izan nintzen, tiroketa eta guzti Txistoki plazan. Norbaitek ba al du berririk?". Hori baino lehen, Sorabilla-Bordaberrin Ertzaintza miaketa lanetan aritu zuten. Ertzaintzak eta Udaltzaingoak, operazioa amaitu arte, ez zuten adierazpenik egin nahi izan. Astelehen goizean, polizia operazioa amaitu eta gero, gertaeraren albistea eman zuen Ertzaintzak.

Gertaeren lekuko izan den herritar batek dioenez, argiak itzalita zeraman anbulantzia Txistokiko zubian gora eta behera ibili omen zen.

ERREDAKZIO MAHAIA

Eguberriaren atarikoa

Andoaingen geroz eta gehiago dira Eguberrien baitan antolatzen diren ekitaldiak. Udalak "Andoaín Bizi" egitasmoaren izenpean batzen ditu, eta lehen hitzorduak abenduaren 1ean hasiko dira. Besteak beste, Salkinen zozketa edota Truchuelo anaien argazki-erakusketa. Abenduaren 9an herriko hainbat eragilek elkartasunezko emanaldia antolatuko dute Basteron, Aspanaguren alde. Eguberrietan, ohi bezala, ez dira klasiko bilakatu diren ekitaldiak faltako: Ikus-zirkus Basteron, Gazte Astea Gazte Lokalean eta Eguberrietako Haur Parkea Allurralde kiroldengan.

GORA ETA BEHERA



Non dira mutilak? Zergatik ez ziren Goikoplazara hurbildu?

Indarkeria matxista gizarte osoari eragiten dion arazoa da. Goikoplazan Udalak eta Asanbladak ekitaldi jendetsua eta parte-hartzailea antolatu zuten. Emakumezkoak ziren nagusi, eta baziren haurrak eta adinekoak ere. Mutikorik ia ez zen ekitaldira hurbildu. Zergatik ez zuten ekitaldia beretzat hartu?



Unean uneko eskaintzarako prest



Andoaingo Xare oinetakoak bikain erabiltzen du Instagram sarea. Bi adibide: Azaroaren 23an Euskaraldiaren aldeko mezua zabaldu zuen, eta 26ko euri jasarekin euritarako eskaintza zabaldu zuen.

Euskaraldia batzordea lan eta lan



San Juan plazan ekin zioten kantujirari. AIURRI



Idiazabal kalera iritsi zirenerako taldea nabarmen handitu zen. AIURRI



Dantzariak eta guzti hurbildu ziren Kantujirarekin bat egitera. AIURRI



Kantuan eta dantzan aritu ziren ostiral iluntzean, Euskaraldiaren hasieran. AIURRI



Euskaraldia batzordeko kideak Kantujirako partaideekin batera, ostiral iluntzean San Juan plazan. AIURRI


Kantuz ekin zioten Urnietan, Euskaraldiari

Azaroaren 23an, kantuan eta dantzan eman zioten hasiera Euskaraldiari Urnietan. Euskararen olatua indartsu iritsi da herrira. Izan ere, 1233 herritarrek eman dute izena ekimenean

Erredakzioa URNIETA

Indarra hartuz doan olatua bezala, Euskaraldia indartsu sartu da Urnietan. Azaroaren 18ko ekitaldiak lehendik zetorren energia biderkatu egin zuen, Ahobizi eta Belarriprest roletan aritutako urnietarren kopurua astebeteko epean nabarmen haziz. Azaroaren 18an 900 inguru ziren. Bost egun beranduago, azaroaren 23an, 1233 lagun. Ziur ez dela horretan geratu. Euskarak txanpa berezia hartu du Euskaraldiaren etorreran. Izan dadila etorkizunean erabilera areagotzeko bultzada berezia.

Parte-hartze datua: 1233



950



283

Hitzordu bikoitza Zanpatuz taldearekin

Herriko elkarte, eragile eta erakunde ezberdinek bat egin dute Euskaraldiarekin. Horietakoa Zanpatuz mendi elkarteak izan da. Eguraldiari dagokionez ez da asteburu polita izan, hala ere, aurrikusitako bi irteerak aurrera atera zituzten



Eguraldia ez zen onena izan, baina hala eta guztiz ere mendi irteera eta ondorengo hamaiketakoa egin zuten Azkorten. ZANPATUZ

Erredakzioa URNIETA

Zanpatuz mendi elkarteak iragarritakoa bete, eta aurrera eramane zituen astebururako iragarritako bi hitzorduak. Larunbatean mendi bizikletako irteerari eutsi zioten. Bustia eta freskoa zen giroa, baina txirringuluriak ez ziren atzean geratu. Eta biharamunean ere antzera izan zen. Lehenik Buruntza mendira, eta ondoren Azkortera, Urnietako mendizale taldeak Euskaraldiarekin bat dagoela erakutsi nahi izan zuen.



Larunbat goizean mendi zeharkaldia egitera irten zen taldetxoa. ZANPATUZ

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKARALDIA

BATU EGINGO GAITU

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

EUSKARALDIA GIPUZKOAN

Euskaraldiaren amaierako ekitaldiak



Filmaren bi protagonista Oria ibaian barrena. OREINA

Euskal film onena Zinemaldian Koldo Almandoz zinegilearen Oreina filmak, kritika bikainak jasotzeaz gain, euskal ekoizpen onenaren Irizar saria eskuratu zuen aurtengo Zinemaldian. Azaroak 30, ostirala. Sarobe, 22:00. 4 euro.



Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak, musikariez lagunduta. EZDOKHIRU

Ez Dok Hiru musika eta antzerki ikuskizuna Euskal musikagintzari errepasoa, egoera dibertigarri ugariarekin tartekatuta. Dozenaka saio egin dituzte Euskal Herrian barrena. Abenduak 2, igandea. Sarobe, 19:00. 8 euro.



Egape ikastolako ospakizuna, artxiboko irudian. EGAPE

Euskararen eguna ikastetxeetan Magale ikastetxeak eta Egape ikastolak, ohi bezala, ospakizunak iragarri dituzte euskararen nazioarteko egunarekin bat eginik. Abenduak 3, astelehena. Ikastetxeetan, eskola orduetan.



Leire Rekalderen esanetara dantzan aritu ziren, Kale Nagusian. Haiekin batera ikastetxeetako ikasleak, Oskarbi gimnasia erritmikoko dantzariak, Klaap akademiako kideak edota Zumbako ikasleak. AIURRI

Bi milatik gora Ahobizi eta Belarriprest

Ospakizuna, hori izan zen Euskaraldiaren hasierarako antolatu zuten ekitaldia. Arrazoa agerikoa zen, eta poza ere bai. Bi milatik gora lagun baitziren izena emandakoak. Azaroaren 23an herritarrek izan ziren datua jasotzen lehenak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Azaroaren 23ko Aiurri astekarian, Ainhua Aiertza Euskaraldiko arduradunetakoak parte-hartze datua ona izango zela aurreratu zuen. Eta, zinez, datua ona zen: 2359 andoaindar izena emanda

zeuden, Ahobizi nahiz Belarriprest paperean aritzeko. Ez da datu horretara mugatuko, oraindik orain jende gehiago izena ematen ari baita, Andoainen eta Euskal Herri osoan. Gizartean eragina izan duen seinale.

Dantza eginez ospatu

Joan zen ostiralean, dantza eginez ekin zioten Euskaraldiari. Sustatzaileen aurpegietan poza, lasaitasuna eta eskertza modukoa nabari zitekeen. Euskararekiko atxikimendua bizirik dago.

Errepidea bereganatu zuten



"Gustura gaude jaso dugun erantzunarekin"

Euskaraldia batzordeak esker ona adierazi zien andoaindarrei: "Lehen pausua eman dugu, izena eman eta txapa janzea. Orain, hamaika egunetan zehar, gaztelerara jotzeko dugun inertiak astindu eta euskaraz aritzeko aukera paregabea izango dugu"

Erredakzioa ANDOAIN

Abiatzea bikaina izan da, hasierako aurreikuspenak gainditu baitira. Honezkero, 2.500 lagun inguru izango dira Euskaraldia-rekin bat agertu diren herritarak. Oso datu ona da hori, eta hori epe erdira euskararen benetako erabilerarekin osatu beharko da. Andoainen behar beharrezkoa da, azken urteotako kaleko erabilera datuak beharrezkoak baitira.

Horixe aditzera ematera etorri zen Ainhua Aiertza, Euskaraldia batzordeko ordezkaria: "Hamaika egunetan ez ezik, Euskaraldia amaituta ere, euskaraz hitz egiteko gai garenok euskaraz egitera eta euskaraz ulertzen duzuenok euskaraz ulertzen duzuela jakinaraztea proposatzen dizuegu. Euskaraldia ekimena hizkuntz ohiturak aldatzeko lehen pausua da; ibilbidea zertxobait luzeagoa izan arren, denon artean aldapa arindu eta ibilbidea erraztuko dugu".



Ainhua Aiertza, Euskaraldia batzordeko ordezkaria. AIURRI

Bakarrizketa eta musika saioa

Larunbatean Euskaraldiaren harira antolatutako egitarauari amaiera emango diote. 19:00tan, "Ingelesa uste baino gehiago dakigu" izenburupean, Mailu Arruti aktoreak saioa gidatuko du Basteron. Alboan, Soinuak mu-

sika eskolako eta Olagain txistulari taldeko kideak izango ditu. Ikuskizunaz goatzeko aurretik eskuratu behar da gonbidapena, Basteroko leihatilan bertan. Abenduaren 3a, euskararen nazioarteko eguna, ikastetxe bakoitzean ospatuko da.



Parte-hartze datua: 2359



1786



573

**AHOZ AHO, BIZI-BIZI,
EIN EUSKARARI!**

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik
abenduaren 3ra

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

**Zorionak
Andoain!**



andoainDARRA
euskaraz

Ahoz aho
bizi-bizi



Alberto Agirre abesbatzako kideak lehen lerroan, Udal agintariekin batera. Eta, atzean emanaldian parte hartu zuten Udal Musika Eskolako Banda eta abesbatza, eta Olagain txistulari banda. AIURRI

Ondo merezitako aitortza ekitaldia

Alberto Agirre abesbatzaren 36 urteko ibilbide nekaezin eta oparoari ohore egin zioten Basteron, joan zen igandean. Aurtengo Santa Zezilia zikloari amaiera dotorea eman zioten, ekitaldi jendetsuan

Xabier Lasa ANDOAIN

Abesbatzak Andoaingo herriari eta euskal kantagintzari erakutsi dien eskuzabaltasuna aitortu zioten. Basteron agerian geratu zen musikak herritarrak batu eta andoaindar nortasun kolektiboa indartzen duela. Ekitaldian parte hartu zuten musikari, abeslari eta dantzariak, denek bat eginik, musikaren historia garaikidean gogoratuko den ospakizun dotore horietakoa osatu zuten, azaroaren 25ean.

Alberto Agirre abesbatzako egungo kideak irten ziren lehenbizi oholtzara, eta Bastero lepo jarri zuen ikuslegoak txalo zaparradarekin hartu zituen, protagonismoa ondo merezitako dutela adieraziz bezala. Ondoren, Ixiar Oreja aurkezleak Olagain txistulari elkarteak kideei festa-batzeko gonbitea luzatu zien, abesbatzarekin batera *Mendigoizale* abestiari ekiteko.

Kontzertua aurrera joan ahala, eszenatokia txiki geratu zen, han bildu baitziren Alberto Agirre abesbatza eta txistulariez gain, Udal Musika eskolako banda eta abesbatza eta Urki dantza taldeko June Miner eta Unai Barrutia dantzariak. Emanaldian euskal kantutegiko hainbat pieza eskaini zituzten: *Maite, maite maitia, Oi Pello, Nere herriko, Txoria txori, Euskal musikaren gorespena*, eta, bukatzeko, *Txanton Piperri*. Hainbeste musikari elkarrekin bilduta, gozatzeko modukoa izan zen. Emozioz beteriko aurpegiak ikus zitezkeen emanaldian zehar. Ospakizunaren azkenerako utzi zuten Alberto Agirre hitzez eta txaloz zoriontzeko tarte. Lehenbizi, 36 urteko ibilbidea irudi bidez jarraitu ahal izan zen pantailan. Eta abesbatzako lehen zuzendarietako batek, Junkal Gerrero, bideoz egindako mezua eskaini zuten.

Kultura zinegotzi Esti Mujikak hartu zuen hitza, jarraian, eskertza adierazteko: “Herriko ekintza ezberdinetan zuen doinuekin gure belarriak goxatu dituzuelako, abesbatza batean parte hartzea kantatzea baino gehiago delako, herri baten aniztasuna eta batasuna azaleratzen baitira”.

Ondoren, Ixiar Oreja aurkezleak, Alberto Agirre abesbatzaren kide edo kolaboratzaile izan diren hainbat pertsonari oholtzara igotzeko dei egin zien. Pilar Txopeitia, Begoña Tolaretxipi, Ramon Beraza edota Joxe Mari Oiartzabal igo ziren omenaldiarekin bat egitera.

Carrere alkateak eta Mujikak, abesbatzako kideei oroigarriak eman zizkieten. Eta abesbatzari Nerea Uralde artistak egindako margoa. Denek batera, *Guk euskaraz* kantatuz, ekitaldi gogoangarriari amaiera eman zioten.



Aspaldiko lagunak elkar agurtzeko eguna izan zen igandekoa. AIURRI

Kide ohien bilkura Basteron

Igandeko emanaldi berezia aspaldiko lagunak elkartzeko baliagarria izan zen. Esaterako, Alberto Agirre abesbatzaren ibilbidean kantari aritu izan direnentzat. Tarteak, Pilar Txopeitia, Begoña Tolaretxipi, Miren Zarraga, Tere Otamendi eta Karmen Alonso. Argazkia ateratzera hurbildu zen oraindik ere kantari aritzen den Fernando.



Ekitaldiaren hasieran abesbatza bakarka aritu zen kantuan. AIURRI



Ramon eta Emilio Truchuelo anaien argazkiak ikusgai daude Basteron, datorren abenduaren 29ra bitarte. AIURRI

XX. mendeko Andoain eta andoaindarrak

Ostiralean egin zuten Basteron Truchuelo anaien argazki erakusketaren irekiera ekitaldia. XX. mendeko Andoain eta andoaindarrak erretratatzeko dituzten milatik gora irudi ageri dira bertan, eta ireki zenetik jendetza hurbildu da erakusketa gelara

Xabier Lasa ANDOAIN

Udalaren eta Andoaingo herriaren izenean, Emilio eta Ramon Truchuelo anaiei eskertza adieraziz Ana Carrere alkateak ekitaldiari hasiera eman zion: “Batetik, argazkiek hirigintza nola joan den aldatzen adierazten digute, eta bestetik gizarteak ekitaldiak ospatzeko moduak, janzkerak eta modak islatzen dizkigute”.

Karmele Otaegi Udal artxiboko arduradunak zehaztu zuenez, 150.000 negatibo eta plakek osatzen dute Truchuelo anaiek Udalaren esku utzi duten argazki funtsa, 1953tik 1999rako epe historikoa hartzen duena.

“Erakusketa, funts horren lagin txikia besterik ez da”. Argazki funtsa antolatzeak ardura daukan Marta Trutxuelo artxiboko langilea –Emilioren alaba, eta Ramonen iloba– hitza hartzen azkena izan zen. *Andoain Truchuelo anaien objektiboan* erakusketaren goiburua hartu zuen ahotan: “Objetiboa hitza aukeratu dugu esanahi bikoitza duelako: objetiboa, argazki kamerarena, eta objetiboa, helburu bezala. Are gehiago, argazki-kamarak ere bi alde ditu: atzean argazkilaria dago eta aurrean irudikatzen duena dugu (gauza bat, leku bat, pertsona bat...)”.

Atal eta gai ugari

Erakusketaren atalei buruzko azalpenak eman zituen Marta Trutxuelok: “Andoaingo leku batzuen irudiak ditugu, bitxiak batzuk, ezezagunak besteak, edo desberdinak kasu batzuetan. Omenaldi, inaugurazio eta ekitaldi politikoekin beste atala osatu dugu. Atal nagusia jaietako da: Erregeak, kaldereroak eta inauteriak, Santakruzak, Sanjuanak, auzotako jaiak...”. Erakusketan pertsonak nabarmendu nahi izan dituzte: ikasketxeak, sariak, musika, kirola, jaunartzeak, ezkontzak... esaera bakarrera laburbilduta: Andoain eta andoaindarrak.

Ikusmina piztu duen erakusketa



Jendetza bildu zen argazki-erakusketaren irekiera ekitaldian. AIURRI

Bisitari ugari erakusketa gelan Milatik gora argazki ikusgai daude, guztiak Andoaingoak. XX. mendearen bigarren zatiko paisaiak, pertsonak eta ospakizunak ageri dira. Aurreikusten zenez, erakusketak interes handia piztu du andoaindarren artean.



Emilio eta Ramon anaiak, emazteak alboan zituztela. AIURRI

Familia ezagunaren ondarea ikusgai Truchuelo anaiek azpimarratu zuten, ibilbide osoan zehar senideen laguntza ezinbestekoa izan zen. Basteroko ekitaldira bi familia osoak hurbildu ziren.



Carrerek, Otaegik eta Trutxuelok hitza hartu zuten irekiera ekitaldian. AIURRI

Udalak jasotako ondarea ikusgai jarri du Ana Carrere alkateak eskertza adierazi zien truchuelotarrei, eta Karmele Otaegik eta Marta Trutxuelok argazki funtsaren eta erakusketaren xehetasunak eskaini zituzten.



EGAPE

Indarkeria matxistaren aurka

Egape ikastolako DBHko ikasleek aurreko asteetan mikromatxismoa gaia lantzen ari direla, kasu horien aurrean zein jokaera hartuko luketen irudikatuz. Esku morean, hausnarketa idatzi zuen ikasle bakoitzak, eta ondoren guztiak ikusgai jarri zituzten eraikineko hesian. Azaroaren 23an ere, Egape ikastolan hainbat jarduera eraman zituzten aurrera, HHTik hasi eta DBHraino.

Langabetuentzako ikastaroa Salesiar ikastetxean

Lanbideren dirulaguntzaren bitartez, langabetuentzako ikastaroa abiatuko da abenduaren 17an. Tresneria industrialaren mantentze eta muntantze mekanikoari buruzko ikastaroa izango da, denera 510 ordukoa.

Ikastaroa astelehenetik ostiralerara eskainiko dute arratsaldeko

15:30etik iluntzeko 20:30era. Ikastaroa egiten dutenek IMAQ0108 gaitasun ziurtagiria eskuratuko dute. Behin ikastaroa egin eta gero, hauexek izan daitezke aterabide profesionalak: Mantentze lanetako mekanikaria, industria-muntatzailea edota linea automatizatuen mantentzailea.

Informazioa:

- 943 551 789
- nekaneb@salesianosurnieta.com

Ikus-entzunezkoa eta bi film ikusgai Urnietan, asteburuan

Ostegun honetan, Immigrazinea zikloan, "Las mujeres de verdad tienen curvas" filma Lekaion, 19:00tan hasita. Biharamunean,

azaroaren 30ean eta Zanpatuz Mendi elkarteak antolatuta, "Al otro lado de la cuerda" eskaladari buruzko dokumentala Saroben, 19:30ean hasita. Gauean, berriz, 22:00tan hasita, Donostiako Zinemaldian Irizar saria eskuratu zuen "Oreina" filma.

"Hitzen lihoa" zikloa Oiartzunen, Xabier Lete gogoan

Xabier Leteren heriotzaren urteurrenarekin bat eginez, egitarau oparoa antolatu dute datozen egunetarako

Erredakzioa URNIETA

"Duela hilabete batzuk, Oiartzunen, hitzaren, bertsoaren, musikaren inguruan zerbait egin genezakeela pentsatzen hasi ginen. Eta horretan ari ginela, Xabier Lete etorri zitzaigun gogora. Hi-

tza, bertsoa eta musika uztartu zituen sortzailea". Sortzaile handia, ezaguna denez, Oiartzunen sortu eta Urnietan bizi izan zen. Hona, Oiartzunen egitaraua laburtuta: Azaroaren 30ean mahai-ingurua antolatu dute, 19:00etan

Asier Niebla gogoan izan zuten San Juan plazan

Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna zen azaroaren 25a, eta aurtengoan urnietarrek oso gogoan izan zuten duela aste gutxi indarkeria sexistarekin lotura duen Asier Nieblaren heriotza. Haren memoriari eutsi nahi diote



Asier Niebla gogoan izan zuten igande eguerdiko elkarretaratzean. UDALA

Erredakzioa URNIETA

"Asier gaur ere gogoan zaitugu" txarteltxo zuriak eta moreak eskuetan, Asier Niebla urnietar gaztearen senideak, lagunak eta herrikideak indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako ekitaldira hurbildu ziren. Azken urteotan baino jende gehiago gerturatu zen San Juan plazara. Ez da harritzekoa, azken hila-beteotan sexu eraso ezberdinak izan baitira. Baita gertaera latzak ere, Asier Nieblaren heriotza esaterako.



Ordezkaritakoak eta herrikide ugari hurbildu ziren San Juan plazako ekitaldira. Bilkura isila izan zen, txalo artean amaitu zena. UDALA

hasita udaletxeko areto nagusian. Besteak beste, Joxe Angel Irigarai eta Antton Valverde bertan izango dira. Abenduaren 1ean, herriko abeslari eta musikariek Xabier Leteren abestiak joko dituzte, 19:00tan hasita San Esteban Elizan. Abenduaren 2an Rafa Ruedak eta Gotzon Barandiaranek Xabier Lete gogoan izango dute. Eta abenduaren 4rako, Leteren heriotzaren urteurrenean, prosa eta poesia lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia iragarri dute.



"Hitzen lihoa" zikloaren aurkezpen ekitaldia Oiartzunen. HITZEN LIHOA

'Lasterka Itzuli', urtea amaitzearekin batera

LASTERKETA Zumea plazatik abiatuko da ospakizun kutsuko lasterketa, datorren abenduaren 31n goizeko 11:30etik aurrera. Antolatzaileek herrikrosa.eus webgunean aldeztu aurretik izena emateko aholkua luzatu diete parte-hartzaileei

Erredakzioa ANDOAIN
Abenduaren 31ren zentzua aldatu egin da Andoainen, herri-tar talde batek 'Lasterka Itzuli' lagunarteko lasterketa antolatzeari ekin zionetik. Eta aldatu, noski, onerako aldatu da. Zumea inguruan eta herrigunean kirol hitzordua ospakizun bilakatzen baita: Errepidearen erditik doazenez jakin badakite lasterketa urteari amaiera emateko jarduera sanoa eta atsegina dela. Alboetan, aldiz, lagunak eta herrikideak animoak emanek izaten dira. Partaideen eta ikuslearen artean halako batasuna ematen da, moztarok tartean direnean areagotzen dena. Antolatzaileen asmoa horixe da: "Lasterketa herrikoi, koloretsu eta parte-hartzailearen bitartez agurtu nahi dugu urtea".

Aurretik izena emateko eskaera
"Lasterketak hartu duen tamainagatik eta egunean bertan sortzen diren ilarak ikusita, jendeak



lazko lasterketako irudia. AIURRI

aldeztu aurretik izena eman dezan sustatu nahi dugu. Antolakuntzaren aldetik lehenagotik izena emateko aholkua luzatu nahi dugu, herrikrosa.eus gunean". 6 euro besterik ez dira izango, eta abenduaren 30eko 24:00ak arte izena emateko aukera izango da. Egunean bertan, ahalik

eta izen-emate gutxienak egin nahi dituzte. Kasu horretan prezioa 8 eurokoa izango da. 14-16 urte artekoek egunean bertan izena eman beharko dute, "heldu batek bertan baimena sinatu beharko duelarik". Hila-bete eskas falta da urtea amaitzeko.



Nahikari Garcia. RS

Nahikari Garciaren gola birala bilakatu da

FUTBOLA Sare sozialetan igandean nabarmendu zen bideoetako izan zen. Valencia-Real Sociedad Kopako partidaren, lu-zapenean zirenean, urnietarrak *chilena* estiloan gol ikusgarria sartu zuen, 1-2koa. Partida irabazi eta hurrengo kanporaketarako sailkatzeko baliagarria.

Lidergotzan sendo

FUTBOLA Gorengo mailan sendo jarraitzen du Euskaldunako lehen taldeak, joan zen asteburuan Ubitarten 3-0 Dunboa taldea garaitu eta gero. Hamaika jardunaldi eta gero, Andoaingo taldeak bost puntuko aldea ateratzen dio Billabona bigarren sailkatuari. Asteburu honetan Berako Gure Txokoa taldearen aurka arituko dira.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA, SASKI

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Euskalduna-Dunboa	3-0
Urnieta-Vasconia	0-1

SAILKAPENA

1	Euskalduna	30 puntu
14	Urnieta	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Gure Txokoa-Euskalduna / Lar, 1
17:15	Ostadar-Urnieta / Lar, 1

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK	
Urnieta-Bergara	7-0
Aloña Mendi-Euskalduna	0-0

SAILKAPENA

1	Urnieta	27 puntu
2	Aloña Mendi	20 puntu
5	Euskalduna	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

-:-	Urnieta / Atsedena
17:30	Euskalduna-Goierri Gorri / Lar, 1

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Kostkas-Euskalduna	6-0

SAILKAPENA

1	Danena	26 puntu
7	Euskalduna	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Ostadar-Euskalduna / Lar, 1
-------	-----------------------------

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZAK	
Aloña Mendi-Euskalduna	2-1

SAILKAPENA

1	Mondragon	25 puntu
9	Urola	16 puntu
10	Euskalduna	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45	Euskalduna-Ilintxa / Lar, 1
-------	-----------------------------

JUBENIL MAILA

EMAITZAK	
Usurbil-Euskalduna	4-5
Urnieta-Billabona	6-0

SAILKAPENA

1	Hernani	27 puntu
4	Urnieta	18 puntu
6	Euskalduna	12 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:15	Lazkao B-Euskalduna / Lar, 1
18:15	Urnieta-Usurbil / Lar, 1

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZAK	
Aritzatalde-Urnieta	24-27

SAILKAPENA

1	Munttarpe	12 puntu
3	Urnieta	11 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00	Urnieta-Munttarpe / Lar, 1
-------	----------------------------

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Legazpi-Leizaran	24-36

SAILKAPENA

1	Urbil Usurbil	12 puntu
3	Egia Kopidin	10 puntu
4	Leizaran	8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Leizaran-Munttarpe / Lar, 1
-------	-----------------------------

SENIOR 2. MAILA

EMAITZA	
Urnieta-Elgoibar	25-20

SAILKAPENA

1	Urnieta	12 puntu
2	Saieko Horia	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Aloña Mendi-Urnieta / Lar, 1
-------	------------------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Bergara-Leizaran	24-28
------------------	-------

SAILKAPENA

1	Leizaran	14 puntu
2	Urola Laztimendi	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Leizaran-Urola Laztimendi / Lar, 1
-------	------------------------------------

JUBENIL MAILA

EMAITZA	
Leizaran-Irun	27-27

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15	Egibide-Leizaran / Ig, 2
-------	--------------------------

EMAITZA, 13-18 POSTUAK

Aloña Mendi-Urnieta	24-27
---------------------	-------

SAILKAPENA

1	Beristain Elgoibar	2 puntu
2	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Urnieta-Hondarribi / Ig, 2
-------	----------------------------

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Elgoibar-Urnieta	26-14
Leizaran-Bergara	21-17

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:30	Urnieta-Eibar / Lar, 1
10:00	Ereintza-Leizaran / Ig, 2

SASKIBALOIA

JUNIOR MAILA

EMAITZA	
Ganbara-Hernani	21-58

ASTEBURUKO PARTIDA

09:30	Take-Ganbara / Igandea, 2
-------	---------------------------

KADETE MAILA

EMAITZA	
-:-	Ganbara / Atsedena

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15	Ganbara-Tolosa / Larunbata, 1
-------	-------------------------------

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 29

URNIETA Erakusketa

1936ko Gerra eta frankismo garaiko kontakizunak emakumeen aurpegiekin, emakumeen ikuspegitik.
Azken eguna: Abenduak 5.
Lekaio. Ordutegia: 17:00-20:00.

ANDOAIN Erakusketa

Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan Andoaingo iragan mendeko dozenaka argazki ikusgai daude. Paisaiaren eta herrikideen oroitzapena, Truchuelo anaien argazkien bidez.
Azken eguna: Abenduak 29.
Bastero. Ordutegia: Ohikoa.

ANDOAIN Lehiaketa

Danobatgroup taldeko lehiaketa antolatu du kooperatibak lantegiak dituen herrietan. Euren webgunean sartuta, hainbat galderei erantzuna eman behar zaie. Saria: landetxe batean asteburu pasa.
Azken eguna: Abenduak 3.

URNIETA Tailerra

Autodefentsa feminista tailerra egingo dute Saroben, datorren abenduaren 15ean 09.30etik 13:30era. 14 urtetik gorako emakumei zuzendua dago. Izena eman daiteke Bertan bulegoetan, Gazte Informazio gunean edota Urnieta.eus webgunean.
Azken eguna: Abenduak 5.

URNIETA Ikastaroa

Udalak emakumei zuzenduriko autoestimua eta ahalduzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urtarrilaren 16an hasi eta martxoaren 20an amaituko da, eta Pepa Bojo psikologoak gidatuko du. Ikastaroa asteazkeneko eskainiko dute Saroben, 15:00etatik 17:00etara. Izena eman behar da Bertan bulegoetan edota webgunean bertan. Urnietan erroldatutakoek lehentasuna izango dute.
Azken eguna: Abenduak 21.

OSTIRALA 30

URNIETA Dokumentala

"Al otro lado de la cuerda" eskaladari buruzkoa. Zanpatuzen eskutik.
19:30, Sarobe.



Izena emateko garaian urnietarrek lehentasuna izango dute.

URNIETA Autodefentsa feminista tailerra abenduaren 15ean

Urnietako Udalak eta Emagin elkarteak elkarlanean antolatuta, 9:30ean hasi eta 13:30ak arte. Tailerra 14 urtetik gorako emakumei zuzendua dago. Izen-ematea: Bertan, Gazte Informazio Puntua eta Urnieta.eus webgunea.
Abenduak 15, larunbata. Sarobe. Izena emateko epea: abenduak 5.

LARUNBATA 1

ANDOAIN Merkataritza

Salkinekin Gabonetako 50 sorta irabazteko aukera urtarrilaren 5a arte.
Abenduaren 1ean hasita.

ANDOAIN Euskaraldia

"Ingelesa uste baino gehiago dakizu" bakarrikzeta saioa. Partaideak: Soinuak, Olagain eta Mailu Arruti.
18:00, Bastero.

IGANDEA 2

URNIETA Antzerkia

Ez Dok Hiru, Telleria eta Martinez aktore ezagunen eskutik.
19:00, Sarobe. 8 euro.

ASTELEHENA 3

ESKUALDEA Ospakizuna

Euskararen nazioarteko eguna.
Bi herrietako ikastetxeetan.

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardi Udal haurreskolan ate irekiera.
16:30, Extremadura, 6. 943 300 655.

ASTEAZKENA 5

ESKUALDEA Durangoko Azoka

Disko eta liburu azoka Landagunean, Ahotsenea zuzeneko aurkezpenak eskaintzen dituzten guneak eta aukera gehiago datozen egunetan.
Abenduak 5-9.
Durango.

ANDOAIN Kontzertua

Mick Harvey australiarra musikari bikainekin arituko da zuzenean. "Songs of Serge Gainsbourg" emanaldia eskainiko du. Haren aurretik Mursego arituko da. Sarrera: 12 euro, gazte ordua: 3 euro.
21:30, Bastero.

IGANDEA 9

ANDOAIN Kontzertua

Aspanogi elkartearen aldeko elkartasunezko kontzertua. Sarrerak salgai daude hainbat tokitan: Triana, Anita, Stop, Delgado, Tahona, Bastero, Muga, Txitibar, Maiton, Elizondo, Bastero eta Xalo loteria administrazioak, eta Bertxin elkarteak.
12:00, Bastero.

ZINEMA

ANDOAIN**BASTERO****Los cinco y el valle de los dinosaurios**

Lar, 1: 17:00.
 Igandea, 2: 17:00.

Bohemian Rhapsody**LEKAO****Las mujeres de verdad tienen curvas**

Immigrazinea zikloa Urnietan:

jatorri mexikarra duen neska baten bizipenak.
 Ostg, 29: 19:00.

Jainkoak ez dit barkatzen

Film dokumentala.
 Asteartea, 4: 19:30.

SAROBE**Al otro lado de la cuerda**

Eskaladari buruzko film dokumentala.
 Ostirala, 30: 19:30.

Oreina

Euskal film onenari saria Zinemaldian.
 Ostirala, 30: 22:00.

SINOPSIAK

**Bohemian Rhapsody**

Zuz.: Bryan Singer. **Herr.:** Erresuma Batua / Estatu Batuak (2018). **Iraupena:** 102 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Queen eta Freddie Mercury

Queen taldeari buruzko pelikula da; bere musika eta taldeko abeslari izan zen

Freddie Mercury-ri buruzkoa. Munduan izan den "showman" maitatuenetakoa da.

Los cinco y el reino de los dinosaurios

Zuz.: Mike Marzuk. **Herr.:** Alemania (2018). **Aktoreak:** Marinus Hohmann, Ron Antony Renzenbrink... **Iraupena:** 132 min.

Dinosaurioaren eskeletoaren bila

Udako oporretan, Bostek itxura bitxia duen Marty Bach izeneko gaztea ezagutuko dute. Bere aitak egoera ezin hobean zegoen dinosaurio baten eskeletoa aurkitu zuela esan

die gazteak, baina arazo bat dauka: "Dinosaurioen harana" aurkitu ahal izateko kodea lapurtu diote. Bostek dinosaurioaren eskeletoa aurkitzea izango dute helburu.

Zerbitzari euskalduna behar da Andoaingo taberna batean lan egiteko ia lanaldi osoan

ESPERIENTZIA ETA LAN EGITEKO GOGOAREKIN
665 704 126

ZORION AGURRAK



URNIETA
Igor
Azaroaren 25ean 9 urte. Segi jator-jator beti bezala. Muxu handi bat zure familiaren partetik, primeran ospatuko dugu!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
Etor zaitez bulegora: 943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz.

Argazki bilketa Urnietan

Udalak 1936-1945 garaikoak eskatu dizkie urnietarrei, Aranzadiren eskutik argitaratuko duen libururako

Erredakzioa URNIETA
Zehazki, 1936-1945 bitartean erre-presioa jasan edo kanporatuak izan ziren urnietarren ingurukoa. Informazioa eskuratzen ari da, Aranzadirekin elkarlanean. Datuak biltzearekin batera, ahozko testigantzen grabaketak ere egin dituzte. Orduko argazkien bila

hasi dira orain, 2019an argia ikusiko duen liburua osatzeko. Argazkiak datorren abenduaren 7a baino lehen aurkez daitezke email bidez (artxibo@urnieta.eus) edota Bertan Udal bulegoan utzita, ohiko ordutegian. Argazkiak bi egunetara itzultzeko konpromisoa hartu du Udalak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 1 eta igandea 2
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415. Andoain.
Osteguna 6
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Hernani.

URNIETA

Larunbata 1 eta igandea 2
ETXEBESTE: Elkano 9, behea.
943 552 087. Hernani.
Osteguna 6
URRUTIA: Etxeberri auzoa 1. Florida.
943 557 738. Hernani.

Errigora kaxak bertan dira

Errigorak bost urte darama Euskal Herriko ekoizpen, merkaturatze eta kontsumo ohituretan eragiten. Denbora horretan, gainera, Errigorak Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari 800.000€uroko ekarpena egin dio herritarrak euskalduntzen jarraitu ahal izateko. Hori guztia posible izan da saskia erosi duten euskaltzaleei esker. Andoainera iritsi berri dira.



ANDOAINGO EUSKARALDIA

ABENDUAK 1, larunbata, 19:00etan
Euskaraldiaren 11 egunen bukaera iristen ari da!!!

Zatoz gurekin ospatzera, Basteroko ekitaldi aretora.

"INGELES USTE BAINO GEHIAGO DAKIGU"

PARTE-HARTZAILEAK:
SOINUAK MUSIKA ESKOLA
OLAGAIN TXISTULARI BANDA
MAILU ARRUTI (bakarrizketa)

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurri: 90 euro

Aiurriko harpidedunek 2019ko egutegia jasoko dute.

HARPIDEDUN IZATEAREN ABANTAILAK

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

AZKENA



Julia Monge. AIURRI

'Emeek emana' erakusketa, Lekaion zabaldik

Erredakzioa ANDOAIN

Emakumeak protagonista diren erakusketa berria zabalik dago Lekaion. 1936tik aurrera, frankismoaren garaiko testuinguru historikoan, emakumeek izan zuten zeregin aktiboa irudi eta lekukotzen bidez jasotzen da. Astelehen arratsaldean egin zuten irekiera ekitaldia, eta bertan izan ziren erakusketa antolatu zuten Julia Monge eta Juan Ramon Garai, Intxorta 1937 elkarteko kideak. Erakusketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin antolatu da. Ekitaldian, Maribel Vaquero eta Mikel Pagola Udal ordezkariak ere parte hartu zuten.

Vaquerok Maria Arizmendi eta bere ahizpak gogora ekarri zituen erakusketaren irekieran: "Emakume Batzakoak ziren, eta euren ideologiari tinko eutsi zioten, erresistentziazko pasarteak bizi izan zituzten, eta zigorra jasan zuten horrexegatik".

Abenduaren 5a bitarte, erakusketa arratsaldeko 17:00tatik 20:00tara zabalik izango da.



Donostiako Zinemaldian aurkezpena egin eta gero, filma Euskal Herrian barrena aurkezten ari dira. JAINKOAKEZDITBARKATZEN

Martin Ugalderen grabaketei esker

Andoaingo gordailutik atera zuen Josu Martinez zuzendariak 'Jainkoak ez dit barkatzen' dokumentala egiteko oinarria: Martin Ugaldek Lezo Urreiztietari egindako grabazioak, hain zuzen. Abenduaren 4an eskainiko dute Basteron, 19:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

"Milaka arma erosi zituen euskal antifaxistentzat. Bere bizia arriskatuz, ehunka pertsonarena salbatu zuen. Franco hil zuen, ia. Lezo Urreiztietak bere bizitza harrigarria kontatzen digu, hil eta 40 urtera", horixe da hurrengo asteartean arratsaldeko 19:30ean Basteron eskainiko duten dokumentalaren sinopsia.

"Jainkoak ez dit barkatzen" filmak Lezo Urreiztietari zenaren bizitza harrigarria aurkezten du. Josu Martinez zuzendariak berak Zuzen agerkari digitalari aitortu dio filmaren protagonista definizioz dela: "Gudari bat zen, ameslaria, utopiaren gudaria, euskal abertzale bat. Horrez gain, itsasgizona, kontrabandista, bihurria, katolikoa, *bon vivant* sama-

rra eta askea erabat, heterodoxoa eta batez ere eskuzabala. Indalecio Prieto sozialistak zioen eskuzabala zela, erotzeraino. *Denentzat dena, eta neretzat deus ez*".

Lezo Urreiztietari 1907an Santurtzin jaio zen, eta haur zenetik gertutik ezagutu zuen itsasoaren eta estraperloaren arteko lotura estua.

Bigarren errepublika garaian ELA sindikatuko eta EAJ-PNV alderdiko Yagi-yagi mugimenduko kidea zen. Korrante independentista zen hura, jeltzaleen barruan.

Gizonak bere bizitzan izan zituen abenturak, denboraren ikuspegitik, harrigarriak dira. Askoren artean, bizpahiru gertaera hurrengo lerroetan.

1934an, Asturias aldean, fusilatze beldur ziren dozenaka lagun itsasoz ateratzeko enkargua egin zioten sozialistek. Gazez iritsi zen, eta bere barkuan 826 pertsona sartu zituen. Enbata gogor bati aurre eginez, Donibane Lohitzuneraino iristea lortu zuen.

1936ko Gerra piztu zenean, 8.000 fusil erosi zituen Txekoslovakian eta Poloniako Danzig portutik Santanderrera ekartzea lortu zuen. Arma horiek guztiak Bizkaiko frontean erabili ziren.

Franco erailteza helburu zuen, eta 1950eko hamarkadan Pazifikokoan Euskal Herria irla batean sortzeko urratsak eman zituen.

IBILERA HORIEK GUZTIAK GAUR ARTE IRITSI BADIRA, Martin Ugalderi esker izan da. 1975 eta 1978 artean hainbat grabazio egin zizkion, 35 ordu denera. Andoaingo Udal artxiboetan kasetetan gordeta zeuden, Ugaldek berak herriari utzitako ondarearen artean. Josu Martinezek denbora eman zuen zinta horiek guztiak entzuten, ia obsesiora iritsi arte. Grabazioak entzunda, oso argi zuen filmaren audioak Lezo Urreiztietaren ahotza izango zuela. Errealismoa indartzen du horrek. Abenduaren 4an Basteron eskainiko dute, eta aurkezle lanetan Josu Martinez zuzendaria eta Ainara, Martin Ugalderen alaba arituko dira.



La 2.ª Guerra Carlista en Gipuzkoa (1872-1876)

Liburuaren azken aleak salgai
Andoainen: 30 €

Erosi Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendetan.

